

In memoriam

Bernard Goiti
(Izpura, 1926 - Kanbo, 2024)

—Xipri Arbelbide—

98 urteko bizi luzea gozaturik joan zaigu Beñat Goiti kalonjea, apezaz aberats izan den Izpura zolako mahastien erdian sortua 1926an, Nafarroako artxiboetan 1366kotzat jadanik aipatua zen bere familiaren baserrian, Uhaldean.

Goiti baino lehentxeago, zenbait ehun metrotan, Jauberrian sortua zen, Hazparneko kolegioari gaitzeko punpea eginarazi zion Joanes Gastelu: kolegioa eskutan hartu zuen 1935ean, 150 ikasle ziren, 1975ean Xarritoni utzi ziolarik, 300.

Etxe beretik ateratua zen Jean Lardapide; Missions de France apez elkartearekin, Frantziako lehen apez langileetarik izana: Donzère-Mondragonen, 27 metro gorako pareta eraiki zuten Rodano ibaiko ura desbideratzeko 24 kilometroko ubide handia irekiz, ur horrekin argindarra egiteko: aspalditik badira ikatz, petrolio eta nuklearrik gabe ari direnak.

Eta hona, beraz, Beñat Goiti. Lehen ikasketak herriko eskolan egin zituen eta hor ikasi frantsesa, orain euskara ikastoletan bezala. Garai haietan euskaraz besterik ez zen entzuten Izpuran. Hortik, Uztaritzeko seminariora joan zen bigarren maila egitera eta gero Baionako seminario handirat. 1951an apeztu zen diozesako beste 25ekin: ez zekiten oraingo apez xuhurreriaren berririk. 25 horietan, utzi gaituen azkena izan da.

Hartze onekoa baitzen, Erromarat igorri zuten Teologiako lizentzia eta Elizako legea den Zuzenbide Kanonikoan doktoretza eskuratzeko.

Horren ondorioz da Elizako epaile izan zen lehenik diozesan eta, gero, Akitanian, bere auzitegiak baititu Elizak ere, hala nola beren gogoaren kontra ezkonarazi dituztenen «ezkontzak» hausteko. Erretiroa hartu zuelarik Kanbon, apezen xahar-etxean, horretarako behar ziren papereriak eramaten zizkioten oraino, lana handik segitzeko.

Baina besterik ere egin zuen erretiroa hartu aitzin. Erromatik itzuli eta urte bat egon zen bikario Donibane Lohizunen. Hortik katedralerat joan, beti bikario, denbora berean Gouyon apezpikuaren idazkari (1957an), euskarazko katiximaren kudeatzaile, apezpikuaren inguruko euskal apezetarik zela. 1967an, Uztaritzeko seminarioaren buru izan zen: Piarres Lafitte ere han zen irakasle zenbait urte hartan, bai eta Etienne Salaberri idazlea ere. Hortik Biarritzerat igorri zuten San Xarlex parrokiako erretore. 1962an Seminario handirat izendatu zuten, Zuzenbide Kanonikoko irakasle, besteak beste.

Handi bezain jakintsu zen entziklopedia zenbaitetan irakurria zuen behin Baionako diozesak ez ziola gauza handirik ekarri Elizari. Akuilu xixtaño horrek gogoia alhan eman zion eta ikertzen hasi zen. Ez alferretan! Harrobi ederrean sartu zen. San Frantses Jatsukoa ez ote da misioen patroia? Joanes Maiorga garaztarra ez ote zen misiolari abiatua, piratek garbitu zutetarik bidean? Jantsenismoaren pentsalari handia izan zen Hauraneko Duvergier, San Cyrango abadeak nolako itzala ez du izan Frantzian barna? «Aita xuriak» misiolariak sortu zituen Lavigerie kardinal baionarra izan zen esklabotzari azken kolpea eman ziotenen buruetarik. Ez ote zituzten Abadia anaiek Etiopiarat etorritak kaputxinoak? Nork daki mundu osoan ezaguna den Panda Handia, bai eta Txinako 9.569 mamutxa, 2.969 landare, 1.332 hegazti, 595 ugaztun eta abar Armand David ezpeletar apez lazaristak deskubritu zituela? Emaztetan hor daukagu Maddi Zabaltzagarai hazpandarra, «Angolako ama Terexa» deitu zutena, Indiako ama Teresarekin konparatuz. «Eman eta zabal ezazu» egia da Baionako diozesarako beste edozeinentzat bezainbat.

2011n aurkeztu zuen 500 orrialdeko tesia, irakasleak Tolosatik Baionako apezpikuteigira etorririk espres-espresa horretarako; gauza arraroa. Liburu normal baten neurrietan atera balitz, mila orrialdez goiti izanen zuen.

Bestalde, 100 bat emanaldi segurtatu zituen Lapurdi irratian, euskaraz eta frantsesez. Herria astekariko bigarren orrialdean, aste guzietz begirada bat ematen zien munduko berriei. Artikulu luze bat idatzi zuen Elizaren eta Estatuaren bereizteak hemen izan zuen eraginaz, *Lankidetzan* aldizkarian. Katixima euskaraz

egitea debekatu zuen legeaz beste artikulua luze bat Eusko Ikaskuntzako *Vasconian*: Estatu frantsesak ez zuen katixima partida, baina katixima euskaraz irakastea; Eliza baino hastialago gure mintzaira.

Euskarak eta Elizak ohoratu dute. Batek, euskaltzain urgazle izendatuz. Besteak, *monseigneur* titulua emanez sotana ubela jaunzteko eskubidearekin, apezpikuek bezala. Aitortu behar dut behin ere ez dudala delako sotana soinean ikusi.